

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
79 zenb.
2023ko martxoa

ZAINTZA IRAULTZEKO

aldarria
martxoaren 8an



EUSKARAREN PILULA



ARI GARA ala GAUDE

OHIKO AKATSAK

1. Besteontzat jai eguna izan arren, brigadakoak lanean **daude**.
2. Gure bizilaguna beti **dago** gauza bera esaten.
3. Azken bolada luzean Realak gaizki jokatzen **dago**.
4. Eguraldi ona iragarri zuten gaurko, baina euria **dago**.

Beraz:

1. Besteontzat jai eguna izan arren, brigadakoak lanean **dabiltza/ari dira**.
Besteontzat jai eguna izan arren, brigadakoek lanean **dihardute**.
2. Gure bizilaguna beti **dabil/ari da** gauza bera esaten.
Gure bizilagunak beti **dihardu** gauza bera esaten.
3. Azken bolada luzean Realak gaizki jokatzen **ari da**.
Azken bolada luzean Realak gaizki jokatzen **dihardu**.
4. Eguraldi ona iragarri zuten gaurko, baina euria **ari du**.

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

Jokamolde nagusiaren arabera, erabat bereiztekoak dira **egon**, batetik, eta **ari izan/ibili/jardun**, bestetik. **Egon** estatikoa da; **ari izan/ibili/jardun**, berriz, zerbait dinamikoa. Kontraesankorra gertatzen da mugimendua eskatzen duen ekintza **egon** aditzarekin adieraztea.

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (otsaolak 13)	1.027	1.088	2.115
JAIOZAK (urriaren 24tik otsailaren 13ra)	0	Aukaj, Manex, Ximun, Martin	4
HERIOTZAK (urriaren 24tik otsailaren 13ra)	Maider, M ^a Carmen, Cecilia	Eusebio	4

MATRAKA



Denon bizitzak erdigunean, zaintzak irauliko ditugu dena aldatzeko!

Pandemia iritsi aurretik hasi zen mugimendu feminista zaintza krisiaz hitz egiten, eta pandemiak krisi hori azaleratu besterik ez zuen egin. Egoera hori ikusita, 2022ko otsailean, pandemia garaian, Gasteizen elkartu ziren hainbat kide feminista Euskal Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioa ezaugarritzen hasteko. Udazkenean herrialdeetan elkartzen aritu gara, eta datozen hilabeteetan prozesua marraztu dugu elkarrekin.

Oraingo zaintza sistema eraldatzeko asmoz, mobilizazio prozesu bati ekingo dio Euskal Herriko mugimendu feministak, eta lehenengo mugarria martxoaren 8a izango da, ondorengo hilabeteetan luzatuko dena.

Prozesu horretan, **martxoaren 4an** izango dugu lehen hitzordua. Goizean, Anoetako emakumeak elkarrekin bilduko gara, eta zaintzari lotutako kafe tertulia egingo dugu, 11:00etan, eragileen lokalean. Kafea, bizkotxoia eta giro goxoa ziurtatuta izango ditugu. Arratsaldean, berriz, eskual-

deko topaketa feminista egingo dugu Tolosan: 17:00etan 'Zaintzak erdigunean' solasaldia izango dugu kultur etxean, eta bertan izango dira honako elkarteetako kideak: Tolosako Asuncion klinika, lurramendi egoitza, etxeko langileak eta Oneka emakume pentsionisten elkarteak. Ondoren, eskualdeko feministak elkarren artean saretzeko, ondo pasatzeko eta elkarrekin gozatzeko tarteak izango dugu,

Martxoaren 8an, berriz, Euskal Herriko kaleak hartuko ditugu berriz, eta ozen aldarrikatuko dugu gaur egungo zaintza sistema eraldatu beharra dagoela herritar guztiok duin bizi gaitezten. Hori horrela, Anoeta eta Irura batuko dituen mobilizazioa egingo dugu, 19:00etan, herriko plazatik abiatuta.

Denon bizitzak erdigunean, zaintzak irauliko ditugu denak aldatzeko!

Martxoaren 8an denok kalera!



PAREKIDETASUNA

Ainarak dokumentalaren proiektzioa

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Ainarak dokumentala proiektatuko dugu auditorioan martxoaren 5ean, igandea, 18:00etan. Genero migrazioaz hitz egiten digu dokumentala; Erronkari, Zaraitzu, Ansó edo Zaragozatik, Mauleko espartin fabriketara lanera joaten ziren emakume haien historia du ardatz. Oinez Pirinioak gurutzatuz, bizimodu hobeto baten bila, urtero egiten zuten migrazioa.



Herriko puntu ilunak



ADI eta SO! indarkeria matxistaren aurkako behatokiak proposatu zuen herriar arriskutsuak izan daitezkeen puntu ilunak identifikatzea, eta neurriak hartzea toki seguruak izateko emakumeentzat.

Helburu horrekin, laske maiatzean herriko emakume batzuk aritu ziren herriko txokoak aztertzen, eta puntu ilunen zerrenda bat osatu zuten.

Puntu gehien kasuan, argiteriarekin lotutako arazoak azaldu dira eta udaleko hirigintza eta brigada departamentuetatik lanean ari dira konponbide bat emateko. Kasu batzuetan, puntu ilun horiek urbanizatu beharreko guneetan azaldu dira, eta obrak egiteko garaian kontuan hartuko da gai hau.

INGURUMENA

Auzokonposta gune berriak

2021. urtearen amaieran, auzokonposta gu-
neak berritu genituen. Horretarako, 33.335,50
euroko inbertsioa egin zen. 2013. urtean jarri
ziren martxan konpostagailuak eta, ditugun
datuen arabera, Anoetako 252 familiak egi-
ten dute konposta. Horietatik %75ak herriko
auzokonpostaguneetan hartzen du parte eta
beste %25ak landa eremuko bakarkako kon-
postagailuetan:

- Urtean 56.000 kilo herrian konpostatzen dira.
- Sortzen dugun organiko guztiaren %27a herrian geratzen da.
- Organiko kilo hauek tratamendu zentro batean tratatzeak 8.622 €-ko gastua luke.

EKONOMIA ZIRKULARRAREN EREDU

Klima larrialdiaren garai hauetan ezinbestekoa da trantsizio ekologikorako ekimenak bultzatzea. Ekonomia zirkularraren eredu argienetako dugu herriko konpostaren proiektua.

- Herriko zuhaitzen adarrak txikitu eta konposterako egituratzailea lortzen dugu
- Organikoa konpost bihurtzen dugu.
- Herriko lorategiak ongarrizko erabiltzen dugu.

IZEN-EMATEAK

Inork konpostaguneen informazioa nahiko balu, Anoetako Udaleko Ingurumen Sailean du horretarako aukera, baita izena ematekoa ere: ingurumena@anoeta.eus edo 943651200 (6. luzapena).

NEXT GENERATION:

50.000 EUROKO DIRULAGUNTZA

Duen garrantziaz jabetuta, Next Generation diru-laguntzetara aurkeztu genuen Anoetako auzokonposta guneak berritzeko proiektua. 62.730 euroko aurrekontua aurkeztu genuen eta %90eko finantziakzioa lortu dugu: 50.000 €.

Proiektu honen oinarria honakoa da: 2021ean berritu genituen konpostagailuen finantziakzioa; herrian zenbat gehiago konpostatze-ko gaitasuna dagoen kalkulatzeko azterketa; eta, azterketa horien ematzetatik abiatuta, konpostagailu berriak jartzea. Beraz, datozen hilabeteetan azterketa horrekin hasiko gara.

KONPOSTAGUNE BERRIETARA EGOKITZEA

Dakizuen moduan, lehengo konpostagailuak egurrezkoak ziren eta oraingoak plastiko birziklatuzkoak. Aldaketa honek konposta prozesua aldatu du eta ohartu gara zenbait guneetan kudeaketa aldatu egin behar dela. Izan ere, egurrezkoek konposta guneetan sortzen zen hezetasuna xurgatu egiten zuten, baina hauek ez dute horretarako gaitasunik eta hezetasun kopuru handiagoa dagoenez konpostatze prozesuan zehar egin beharreko esku-hartzea ezberdina da. Horregatik, datozen hilabeteetan, kudeaketaz arduratzen diren langileen formakuntza egingo dugu.

GIZARTE ZERBITZUAK


Elikagaien bankua

Elikagaien bankua borondatezko izaera duen elkarte bat da. Alferrik galdu edo botatzen diren elikagaiak etekina ateratzea da helburua, horiek premia duten pertsonen helaraziz.

Azken urte hauetako krisi ekonomikoa oso gogorra izaten ari da gure inguruko askorentzat eta, hori dela eta, inoiz baino garrantzitsuagoa da elikagaien bankuaren lana.

Anoetako eta Irurako Udalek hitzarmen bat sinatu dute Elikagaien Bankuarekin, eta hila-betero elikagai-sorta batzuk banatzen dira herriko onuradunen artean. Banaketa hilean behin egiten da Anoetaren eta Iruraren artean, txandaka.

Elikagaiak Oiartzungo biltegi nagusian biltzen dira eta Udaleko langileek han jasotzen dituzte. Gero, elikagai-sortak prestatzen dira frontoian. Horiek prestatzeko orduan, familia bakoitzaren egoera izaten da kontuan: zenbat kide diren, zenbat haur dauden, haurren adina... Prozesu horretan, herriko adineko pertsonen talde bat arduratzen da, gizarte-administrariarekin batera, elikagaiak



prestatzeaz, lan handia ematen baitu. Beneran eskertzekoa da adinekoen talde horrek egiten duen lana. Eskerrik beroenak Udalaren aldetik.

Elikagai-sortak prest daudenean, banaketari hasiera ematen zaio, eta onuradunak horiek jasotzera etortzen dira.

Elikagaien bankuko onuradun izateko, baldintza batzuk bete behar dira: herrian errolatua egotea, ondasunik ez izatea (etxebizitzaz gain) eta diru-sarrera mugatuak izatea. Zuk ere onuradun izan nahi baduzu, eska ezazu hitzordua gizarte-langilearekin eta bete eskaera.

2023ko otsaileko datuen arabera, Anoetako 16 eta Irurako 15 familiak jaso zituzten elikagaiak Anoetan. Anoetarren kasuan, horietatik hamaikak 16 urtetik beherako seme-alabak dituzte.

Anoetako adinekoentzako

Ttipi-ttapa egitasmoa martxan

Anoetako Gizarte Zerbitzuetatik 65 urtetik gorako pertsonen bideraturiko egitasmoa martxan da eta hileroko lehenengo asteko asteazkenetan burutzen da.

Ekimenaren helburua: ariketa fisikoa egitea bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzea.

Horretarako, herrian paseoak antolatzen dira eta bukaeran hamaiketako eskaintzen da.

Paseoetan parte hartzeko izen-ematea Anoetako gizarte zerbitzuetan egin behar da.

- 943 56 92 13
- gizarte@anoeta.eus

**ANIMA ZAITEZ
ETA PARTE HARTU!**

Hemen urte osoko egutegia:



OMENALDIA

Agur, Xixili!



Udalak omenaldi xumea egin zion Xixili Mariñelarena Gorostiagari iazko azaroaren 22an, bere 100. urtemugan. Lore sorta eta egurrezko kutxa txiki bat oparitu zizkion eta Anitz dantza taldeko bi dantzarik agurra dantzatu zioten, Loatzo Musika Eskolako txistulariek lagunduta.

Xixili Nafarroako Alli herrian jaio zen, 1922ko azaroaren 22an, eta 8 urterekin etorri zen bizitzera Gipuzkoara, aitaren lana dela eta. 11 urte zituenetik Tolosako, Ordiziako eta Andoaingo etxeetan lan egin zuen ezkondu arte, 1.956. urtean. Gero Irurara joan zen bizitzera, senarrak lan egiten zuen Guadalupe Papelerako etxera.

Gazte gelditu zen alargun, alabak oso txikiak izanda (2 eta 3 urte), eta bizitza aurrera ateratzeko gogor lan egin behar izan zuen jubilatatu arte, 61 urterekin.

100 urte bizitzea ez da ahuntzaren gauerdi-ko estula, eta bizipen asko izan zituen (gerra eta gerra ostekoa besteak beste), azken hatsa eman arte, aurtengo urtarrilaren 26an.

Goian bego.



TTIPI-TTAPA EGUTEGIA ANOETA



2023

urtarrila	otsaila	martxoa	apirila
2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28	6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
maietza	ekaina	uztaila	abuztua
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
iraila	urria	azaroa	abendua
4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

LIBURUTEGIA

NEGUKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera:

16:30-19:30

Ostiraletan:

11:00-13:30



2022ko LIBURU IRAKURRIENAK

Atzean utzi berri dugun urtean zehar Anoetako irakurleen artean gehien mailegatu diren liburuak, hauek izan dira:

- Eraikuntzarako materiala / Eider Rodriguez (helduen saila, euskaraz)
- Los últimos románticos / Txani Rodríguez (helduen saila, gaztelaniaz)



Haur eta gazteen sailean berriz, Katta-ren bilduma osoak izan du arrakasta gehien. Katta-ren liburuak dira, zalantzarik gabe, Anoetan gehien irakurtzen direnak!



LIBURU BERRIAK

Urte berriarekin batera, liburu interesgarri mordo ari zaigu iristen liburutegira.

Helduen sailean, besteak beste, hauek topatuko dituzue:



Haur eta gazteen sailean berriz, arrakasta handia izaten ari den "Cube Arts 1" iritsi da liburutegira: euskaraz argitaratu den lehen manga da, 12 urte-tik gorako gazteei zuzendua. Arta bildumaren lehen alea ere badugu, "Arta en el apocalipsis máximo", 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat.



GOMENDIOAK

Helduentzat euskaraz:

- Atarian / Maixa Zugasti
- Gari eta goroldiozko / Anari
- Begiak zabalduko zaizkizue / Irati Jimenez

Helduentzat gaztelaniaz:

- Seis cuatro / Hideo Yokoyama
- Esperando el diluvio / Dolores Redondo
- Esto no se dice / Alejandro Palomas

Gazteentzat:

- Luaren itzala / John Andueza
- Zerria / Patxi Zubizarreta
- Cube Arts 1 / Tomomi Usui

Haurrentzat:

- Kiratsa / Eider Adeletx
- Arta en el apocalipsis máximo / Arta Game
- Katta (15 - Bainua eta 16 - Misioa) / Miren Agur Meabe

EKINTZAK

2022 urtea Lur Kortaren ipuin kontaketaekin amaitu genuen. Udaberrian berriz hasiko gara ipuin saioekin, adi egon!

GAZTERIA



Gaztelekuko berriak

Dagoeneko ikasturte erdia joan zaigu. Tarte honetan ekintza desberdin asko egin ditugu gaztelekuan: kirol jolasak, karaokeak, eskulanak... Geroz eta gazte gehiago hurbiltzen dira gugana eta horrek poz handia sorrazten digu.

Tarte honetan ekintza eta eskaintza berezi desberdinak aurrera eraman ditugu, horien artean eguberrietako eskaintza berezia, gazte zein haurren oporraldiari begira. Aste Santuko oporraldian ere, ekintza desberdinak eskaintzea aurre ikusten dugu. Bestetik, Errealaren fundazioaren jolas parkea izan ge-

nuen Gabonetan, eta Inauteriei hasiera emateko jolas parkea, ekintza berezi gisa.

Bestalde, Irurako gaztelekuarekin elkarlana sendotzen ari gara. Urte hasieran Anoetako LH6ko ikasleek Irurako gaztelekua ikustera joan ziren, eta Irurako gazteak ezagutzeko aukera paregabea izan zen. Hurrengo Anoetako gaztelekuan egingo dugu, hau ezagutzeko eta beraiek gurekin izandako adeitasunari esker ona bermatzeko.

Lanean jarraituko dugu, herriko gazteek aisialdi zabala eta aukera askotarikoa izan dezaten.

LOATZO



Kaldereroak 2023: Iruratik Anoetara

Aurtengo kaldereroak ere ilusioz ospatu genituen. Haur, gazte, zein helduak zartagi eta mailu edo goilararekin, txarangaren soinu majikoarekin astindu genituen herriko txoko ezberdinak.

Herriko elkarte, musika eskola, eta ikastetxe eta udalaren artean eman diogu kutsua ekin-

tza honi. Oso egun polita ospatu genuen eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiegu eragile guzti hauei, denon artean ilusioz egindako lana aurrera eraman dugulako. Elkarlana dagoenean, horrelako ekintzak aurrera ateratzea posible dela ikusi dugu.


Mila esker eta datorren urtera arte!



HERRI IKASTOLA



Ikastolak webgune berria du!



Joan den ikasturtean hasi genuen Ikastolako webgunea berritzeko prozesua. Erabiltzaileentzat **erabilgarria eta erakargarria** izango den webgunea sortu nahi genuen, eguneratua, erabilerraza, atal eta diseinu berrieekin.

Komunitatea osatzen dugun guztioi gure iritzia ezagutzea izan zen lehen urratsa: webguneko zein eduki bisitatzen dugun gehien, zein maiztasunez, zein atal berri eranstea nahiko genukeen... Horretarako, galdetegia pasa genien familiei, ikasleei eta irakasleei.

Ondoren, **erabiltzaileen iritzia kontuan hartuz**, webgune berriaren diseinuari ekin genion: atalak, testuak, estetika... Diseinu kontuetan Amaia Iruretagoiena tolosarrak lagundu digu; alderdi teknikoetan, berriz, Ikastolen Elkarteko informatikari taldeak.

Orri nagusian **agenda, argazki bildumak eta albisteak** topatuko dituzue. Baina horrez gain, menu nagusietan beste atal interesgarriak dituzue eskura:

- **Ikastola:** ikastolaren aurkezpena, historia, eraikina, espazioak eta lan-taldearen aurkezpena biltzen dituen atala.
- **Egitasmo Pedagogikoa:** ikastolaren Hezkuntza Proiektuari eta beste hainbat proiekturi buruzko informazioa biltzen duen atala.
- **Hezkuntza Eskaintza:** Ikastolako hezkuntza etapa bakoitzari buruzko informazioa biltzen duen atala (HH, LH eta DBH), irakasle taldearen aurkezpena, metodologia eta etapako proiektuak...
- **Zerbitzuak:** Jangela, Guraso Eskola edo Goiz Txokoari buruzko informazioa. Kirol eskaintzako atalean asteburuko ekintzen informazio eguneratua ematen da.
- **Eraldaketa:** Ikastolan bizitzen ari garen eraldaketa pedagogikoaren inguruko informazioa biltzen duen atala da, idatzikoa nahiz ikus-entzunezkoa. LH3 eta DBH1 mailetan 2022-2023 ikasturte honetan ezarri dugun **HABI eredu pedagogiko berriari** buruzko informazioa laburtzen da atal honetan.

Espero dugu webgune berria zuen gustukoa izatea, eta batez ere, guztiontzako erabilgarri eta baliagarria. Animatu eta bisita itzazue atal eta txoko guztiak!

IRATXULO EUSKARA TALDEA

Kaixo!




Iratxulo Euskara Taldeko kideok lanean ekin diogu 2023. urteari. Urtearen hasiera honetan, herriko merkatari eta tabernetatik pasa gara, beren establezimientuetako kartelak edota testuak euskaratzen laguntzeko prest gaudela adierazteko. Gure iritziz, tabernetan eta establezimientuetan euskarak presentzia izatea ezinbestekoa da, are gehiago, Anoeta bezalako herri euskaldun batean. Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu, Euskaraldian ikusi bezala, Anoetako denda eta taberna gehienak ariguneak direla, eta beraz, lasai asko hitz egin dezakegula euskaraz.

Bestalde, aurten ere **Euskahalduntze tailerra** martxan jartzeko asmoa daukagu. Iaz antolatu genuen lehen aldiz, eta oso balorazio positiboa egin genuen tailerraren amaieran. Bizipenetatik abiatuta, euskaraz hitz egiteko erabakiarekin eroso sentitzeko erramintak landu genituen. Izan ere, zuk lasai eta eroso hitz egiten al duzu euskaraz leku guztietan? Edo deseroso sentitzen zara? Nola sentitzen zara euskaraz hitz egiten hasi, eta ez dakizunean parean dagoenak ulertuko zaituen edo ez? Horri aurre egiteko erramintak landu nahi dituzu?

Ikastaroa martxoaren amaieran hasiko da, eta izen ematea zabalik dago dagoeneko. Horretarako, mezu bat idatz dezakezue iratxuloeuskarataldea@gmail.com helbidera martxoaren 20a baino lehen.

Jarrai dezagun euskaraz bizitzen!
Iratxulo Euskara Taldea



EH SOZIALISTA

Zer gertatzen ari da Tolosako Txoznetan?

Tolosako Iñauterietan txozna Euskal Herria plazan antolatzen hamarkada bat baino gehiago eman ondoren, aurten EAJren udalak plaza horretatik kanporatzea eta jai girotik aldentzea inposatu du, erabat modu antidemokratikoan eta alde bakarrez.

Horretarako, erabili duten aitzakia zaratak plazako bizilagunei sortzen dien eragozpena izan da. Txozna Batzordetik urtero bete ditugu Udalarekin adostutako baldintza guztiak musikaren bolumenari dagokionean. Baina azken batean, zarata saihestezina izango da, txosnak egon ala ez, iñauterietan tabernaz inguratutako erdiguneko plaza batean.

Joan den urteko urrian udalaren asmoa jakin genuenetik, Txozna Batzordea osatzen dugun eragile guztiak ados egon ginen Euskal Herria Plazatik kanporatzea ez onartzean. Horrela beraz, herritarren babesa biltzeko kanpaina publikoa abiatu genuen, arrakasta handiarekin gainera.

Bileretan ezadostasunik planteatu gabe, Tolosako Sortuk urtarrilaren 26an gutun bat argitaratu zuen Txozna Batzordearen aurka justifikaziorik ez duten salaketak eginez. "Konfrontazioa eta liskarra" lehenetsi genituela azpimarratzen zen. Guk! Eta ez EAJren udalak?

Gutuna argitaratu eta bi egunetara, Batzordea osatzen dugun gainerako eragileoi ezer aipatu gabe, Sortuk bere aldetik prentsaurre-



ko bat egin zuen Plaza Berrian gune berri bat antolatzeko asmoa zuela aurkezteko, udalaren "proposamen-inposaketa" eta argudiaketa guztia babestuz.

Txunditurik geratu gara jokaldi horren aurrean. Beste eragileak iñauterietan txozna ezin jartzeko arriskuan geratu gara, dagoneko programazioa itxita genuenean. Horregatik, aurten plaza berrian txozna jartzeko adostasunera heltzera beharturik gaude. Baina Sortuk eta Ernaik egin dutenaz hausnartu eta jarrera zuzendu behar dute, batzordean berriro parte hartzera itzuliz eta bertan demokratikoki hartutako erabakiak onartuz.

Ez dezagun ahaztu. Gure etsai aitortua eskuina da, patronalaren ofentsibaren alderdia. EAJren udaletxearen aurrean burua makurtuz eta beste alde batera begiratzuz, ezinezkoa da langileen eta gazteen aldeko politikak defendatzea, are gutxiago krisi kapitalistaren, eskubide sozialen murrizketen eta askatasun demokratikoen aurkako erasoaldiaren tes-tuinguru honetan.

Ezker Iraultzailea-Euskal Herria Sozialista

KUKUAK KANTUZ

Santa Ageda bezpera



Aurten, berriz ere, baserrietako atarietara iritsi gara makil hotsez, oles eginez usadio zahar berriari.

OLES OLES LURRA ESNA ZAITEZ!! Abestu genuen baserrietan eta kalean.....norberak bere esan nahia emanaz, makilak eskuetan.

Baserrietara jo genuen goiz partean eta beti bezala,ateak parez pare zabalik aurkitu genituen: pastak,kafea, ardoa, salda, txokolatea... Eskerrik asko denoi bihotzez!!

Goizetik gauera Txomin Azpiroz izan genuen bertsotan taldean. Sagardotegian Angel Mari Peñagarikano gehitu zen eta giro aparta sortu zen bi bertsolariekin.

Egun ederra pasa genuen eta eskerrak eman nahi dizkiegu baserritarrei, kaletarrei, entzuten egon ziren guztiei, eta nola ez, Maialeni, Markoxi...zuen doinurik gabe ezinezkoa litza-tekeelako.

Segi dezagun lurra esnatzen, herria egiten!!!



ANITZ DANTZA TALDEA

2023Ko emanaldiak



Aurtengoan, Anitz Dantzari Taldeak hainbat emanaldi eskainiko ditu urtean zehar: Dantzari Txiki Eguna, Anitz Eguna eta Herriarteko Dantzari Gazteen topaketa.

Dantzari Txiki eguna apirilaren 23an ospatuko da. Egun osoko ospakizuna izango da. Goizean, Anoetako Dantza Taldeak gain, beste herrietatik etorritako dantza taldeek parte hartuko dute eta arratsaldean herriko dantzariak soilik eskainiko dute euren emanaldia.

Anitz Eguna maiatzaren 20an ospatuko da. Egun osoko ospakizuna izango da. Bertan

Anitz Dantza Taldeko partaideek parte hartuko dute, denera 139 dantzari oholtza gainean. Bi urtez behin ospatzen den eguna da hau eta beraz, aurtengoan, herriko festen baitan egiten den gaueko emanaldirik ez da izango.

Herriarteko Dantzari Gazteen topaketa ekainaren 2an ospatuko da, arratsaldean. Anoetako Gazteen taldeek ez ezik, beste 3 herrietako dantzari gazteek hartuko dute parte: Legorreta, Idiazabal eta Zaldibia.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan...



ERREZETA

Porru quichea



**BERTAKOA
BERTATIK**

**BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HERRI BIZIAK**

Garaikoak ditugun porruekin eta beste osagai batzuekin quichea egin dezakegu, barazkiak jateko beste era bat.

Osagaiak:

- 4 porru
- Txanpinoiak
- Hostorea (hojaldrea)
- 200ml esnegaina
- 4 arrautza

Prestaketa:

1. Porruak garbitu, zatitu eta egosi 15 minutuz.
2. Bitartean, txanpinoiak frijitu zartaginean.
3. Esnegaina eta arrautzak irabiagailuarekin nahastu eta gatza eta piperbeltza gehitu.
4. Porruak egosita eta txikituta, txanpinoiak frijitu-ta eta esnegaina eta arrautzak nahastuta osagai guztiak elkartu.
5. Hostorea labean sartzeko ontzi batean jarri eta nahasketa bota.
6. Labean sartu 30 minutuz 190 gradutan.

... **ON EGIN!**



ITURRIA: <https://www.kirikinotaldea.eus/l/porru-quichea-egiteko-errezeta/>